

358R0001)

6. 10. 58

EUROPAKO ERKIDEGOETAKO ALDIZKARI OFIZIALA

385158

1. ERREGELAMENDUA

Europako Ekonomia Erkidegoa hizkuntza-araubidea finkatzen duena

EUROPAKO EKONOMIA ERKIDEGOKO KONTSEILUAK

4. artikulua

Ikusita Trataturen 217. artikulua, zeinak baitio Erkidegoko instituzioen hizkuntza-araubidea Kontseiluak finkatuko duela, aho batez, hargatik eragotzi gabe Justizia Auzitegiaren erregelamenduan aurreikusitako xedapenak.

Erregelamenduak eta irismen orokorreko gainerako testuak lau hizkuntza ofizialetan idatziko dira.

Kontuan hartuz Trataturia idatzia izan den lau hizkuntzetako bakoitza ofiziala dela Erkidegoko estatu kide batean edo gehiagotan,

5. artikulua

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DU:

Erkidegoaren Aldizkari Ofiziala lau hizkuntza ofizialetan argitaratuko da.

1.
artikulua

Erkidegoko instituzioen hizkuntza ofizialak eta lan-hizkuntzak alemana, frantsesa, italiara eta nederlandera izango dira.

6. artikulua

Instituzioek hizkuntza-araubide hori aplikatzeko modalitateak zehaztu ahal izango dituzte barne-erregelamenduetan.

2.
artikulua

Estatu kide batek edo pertsona batek instituzioetara bidaltzen dituen testuak hizkuntza ofizialetako batean idatziko dira, bidaltzailearen aukeraren arabera. Erantzuna hizkuntza berean idatziko da.

7. artikulua

Justizia Auzitegiaren prozeduraren hizkuntza-araubidea auzitegi horren prozedura-erregelamenduan zehaztuko da.

3.
artikulua

Instituzioek estatu kide bati edo estatu kide horren jurisdikziokoa den pertsona bati bidaltzen dizkieten testuak estatu horretako hizkuntzan idatziko dira.

8. artikulua

Hizkuntza ofizial bat baino gehiago duten estatu kideei dagokienez, hizkuntza baten erabilera, estatu interesdunak hala eskatuta, estatu horretako legeriaren arau orokorrek arautuko dute.

Erregelamendu hau oso-osoan bete beharko da, eta zuzenean aplikatu estatu kide bakoitzean.

Bruselan egina, 1958ko apirilaren 15ean.

Kontseiluko

presidentea

V. LAROCK